



Laborategi bat herritarrentzat

Laboratorium museoa irekiko dute Bergaran ekainean • Gizarte museo bat izango da, eta XVIII. eta XIX. mendeetan Errege Mintegiko laborategietan erabilitako hainbat tresna bilduko ditu

Maite Alustiza Bergara

Argiak ilun daude Bergarako Errege Mintegiko biltegian. Plastikoz estalita daude apalak; piezak babesean dituzte, lekualdatuak izateko bidean. Lehen begiratuan ikusi ez arren, kalkulaezina da eraikinak biltzen dituen istorioen eta historiaren balioa: XVIII. eta XIX. mendeetan Euskal Herriko hezkuntza eta zientzia erakunde garrantzitsuena hartu zuen Errege Mintegiak, eta orduko laborategietan erabilitako elementuetako asko gaur egunera arte mantendu dituzte. Mineralak daude, fosilak, giza anatomia-aren modeloak, kimika eta fisikako tresneria, zoologia bilduma. Ekain erdialdetik, Laboratorium museoa ikusgai izango dira horietako zenbait –seminarioan zegoen Laboratorium Chemicum laborategitik dator izena–.

Itñaki Irizar eta Rosa Errazkin udal teknikariek eta Arianne Kareaiga zinegotziak gidatu dute bisita. Errazkinek mahai gainera

atera du giza eskuin begiaren modelo bat, baita eskailera sugeak dituen pote bat ere. Mahaia bera ere ez da nolana hikoia: Bergarako Besarkada sinatu zuten hor gainera Rafael Maroto jeneral karlistak eta Espartero jeneral liberalak, 1839an. *Panthera pardus* XIX. mendeko lehoinabarra ere gelan gordea dute; koadro batean, biltegioko ganbaran aurkitutako balearen eskeletoa seinatu du Irizarrek.

Bergaran hezkuntzaren eta zientziaren alde egindako apustuak material mordoia utzi zuen bi mendetan. Balioz oharu eta ondarea zabaltzeko asmoz, museo bat egitea erabaki zuen udalak 1981ean, baina luze jo du proiektuak. Batetik, bildumen eta erakundearen historian sakontzen jardun dute, eta, bestetik, bilduma berreskuratzen joan dira. «Bildumen egoera oso kaskarra zen: piezak apurtuta zeuden, eraikinaren zenbait gelatan sakanatuta...», dio Irizarrek. XVIII. mendeko hainbat tresna gorde

arren, material gehiena XIX. mendekoa da, Parisen erositakoa –Berlin eta Londrestik ekarritakoak ere badira–. Elementuak sailkatzea ere ez da lan erraza izan: «Antzinako tresneria zientifikoari buruz gaur egun hasi da informazio asko azaleratzen, artxiboak digitalizatzen joan diren heinean, baina orain dela 10-15 urte oso zaila zen».

Gizarte museoa

Errege Mintegitik Errekalde jauregira doa bisita, benetako museuma. Han egongo da Laboratorium. Eraikinaren aurrealdean jarriko duten panela ere iritsi berri zaie: «Hau badoa aurrera, beste pauso bat gehiago», dio Errazkinek, pozik. Museoa izango denaren atarian, *gizarte museo* kontzeptuaz ari da Irizar: «Gizarte museo batean ezinbestekoa da museoaren eta inguruko eragileen artean lotura oso handia egotea, eta museoaren jardueraren zati bat beraiekin egitea». Dioenez, aldi berean bildumekin eta

lurraldeko ondarearekin lan egitea lortu behar da; bisitariekin lan egitea, baina baita herritarrekin ere. Gainera, museoa «gizartearen garapen iraunkorrerako tresna» izan dadin nahi dute, «tresna bizi eta ireki bat». Horretarako, udalak museo arloko teknikariak, tokiko garapeneoak eta parte hartze sailekoak elkartu ditu, eta, era berean, bisitak egiten ari da herritar eta eragileekin, haien ekarpenak jasotzeko asmoz.

XIX. mendekoa da Errekalde jauregiaren eraikina. Kanpotik ez ezik, ikusgarria da barrutik ere.

3.000

KONTSERBATUTAKO PIEZAK

Errege Mintegiko laborategietan aurreko mendeetan erabiltako 3.000 objektu zientifiko kontserbatzen dituzte seminarioan: fisika eta kimika arlokoak, mineralak, fosilak, giza anatomia-ko piezak...

Beira leihoak paretetan, egurrezko egitura, espazio zabalak. Berri usaina dario. Lurra aldatu dute, baina jatorrizkoa da egurra.

Harrera gunea prest da. Bi funtzio izango ditu, gainera, turismo bulegoa ere han jarri baitute. Beheto geletako bat aldi baterako erakusketen tokia izango da. Eskailerak igota, berriez, erakusketa iraunkorra bisitatu ahalko da. Ehun pieza inguru jasoko dituzte horretan: «Gainerako materiala jarduera didaktikoetan erabiliko dugu, eta baita aldi baterako erakusketetarako ere».

Solairuko buelta osoa hartuko du erakusketa iraunkorrak. «Duela 250 urte pertsona batzuek ilusio handiarekin proiektu oso handia martxan jarri zutela kontatzen da hemen, eta horrek izan duen eragina ezagutzera gonbidatzen ditu bisitariak», dio Irizarrek erakusketa hasiko den guneari seinatuz. Lehen bi guneean, ilustrazioan egindako apustuak eta emaitzak jasoko dituzte, hau da, kalitatezko hez-

Laboratorium proiektua gizar-teratzeko bisitak antolatzen ari da Bergarako Udala. Horrez gain, herritarrei aukera zabaldu nahi die etorkizunerako elkarlanerako aukerak planteatzeko.

Orain arte, auzoetako ordezkariekin, udal teknikariekin, kultur eta kirol elkarteekin, enpresekin, eskolekin, hezkuntza eta turismo eragileekin eta merkatariekin egin dituzte bisitak. Honako hauek dira hurrengo bisitetarako egunak:
Apirilaren 15ean. 19:00etan.
Apirilaren 16an. 19:00etan.
Apirilaren 20an. 19:00etan.
Apirilaren 21ean. 10:30etan.

kuntza eta zientzia Euskal Herrira ekartzeak izan zuen eragina. Garapenari ere jarriko diote arreta: fisikaren garapenak, industrializazioa aplikatuta, nolako aldaketak sortu zituen XIX. mendeko gizartean. «Tresna berriak hasten dira sortzen, mugitzeko moduak aldatu egiten dira...».

Natur zientziei ere egingo diete tokia. Irizarren arabera, XIX. mendean natur zientziek sekularo garapena izan zuten, eta horiei esker, mende bukaeran asko



«Bildumen egoera oso kaskarra zen: piezak apurtuta zeuden, eraikinaren geletan sakabanatuta...»

«Gure nahia da gazteekin gaurko arazoak identifikatu eta zientziaren bidez soluzioa ematea»

Iñaki Irizar
Bergarako Udaleko teknikaria

aldatu zen pentsatzeko modua. «XVIII. mendean gizarteak pentsatzen zuen: 'Gu kreaio berezi baten emaitza gara, mundua infinitua da eta gure zerbitzura dago'. XIX. mende bukaeran, berriz, garapenak bestela pentsatzera eramane zituen: 'Gu bat gehiago gara, homo sapiens, eta mundua finitua da'. Ordurako planteatzen zen lurraldea ez dela agorrezina, erabiltzen den moduaren arabera». Historia orokorra izan arren, ardatz gisa erabiliko dituzte Errege Mintegia eta haren bilduma.

Ibilbidearen bukaeran, ikusentzunezko batek agurtuko du bisitaria, eta bi hausnarketa proposatu: «Batetik, planteatuko zaie ea beren ustetan datozen



1 **Errekalde jauregia.** Eraikin horrek hartuko du Laboratorium museoa ekain erdialdetik aurrera.

2 **Harrera gunea.** Museoaren harrera guneak bi funtzio izango ditu: turismo bulegoa ere bertan jarri dute.

3 **Tresneria.** Haldat aparatua eta Carre makina kontserbatzen dituzte seminarioan, besteak beste.

4 **Biltegia.** Plastikoz estaliak dituzte tresnak Errege Mintegian.

ARGAZKIAK: ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

aldaketei aurre egiteko kalitateko hezkuntza eta zientzia baliagarriak diren, eta, bestetik, XVIII. mendean bezala eliteen esku utzi behar ote diren aldatetak, edo denon artean egin».

Jarduera didaktikoak

Ikusiz ikasteaz gain, egiten ikasteko aukera ere eskainiko du museoak. Horretarako, jarduera didaktikoak antolatuko dituzte, bai alde humanistikotik, baita arlo zientifikotik ere. Datozen asteetan hasiko dira jarduerak diseinatzen, ekarpenak jaso ondoren. Besteak beste, zientzia laborategi bat jarriko dute museoan. Gela prest dute, eta hilaren 15ean hasiko da muntatzea; jardueri, berriz, hurrengo ikasturtean ekingo diete. «Publiko ezberdinekin lan egingo dugu. Gure nahia da gazteekin lan egitea, gaurko arazoak ondo identifikatu eta zientziaren bidez soluzioa ematea».